# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia | Iruña, 2009ko urriaren 2a | 96. ZK.


## A U R K I B I D E A


B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

—Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

—Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikuluaren b) letra aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, zerbitzu publikoak eta kalitatezko eta ongizatezko gizarte bat bermatzeko neurri fiskalei buruzkoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezala proiektatu den Nafarroako Ospitalearen larrialdietarako eraikin berrian errotulazioa euskaraz ere egonen dela. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran antola ditzan Navarra Gourmet kongresuko zenbait ekitaldi. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen da lankidetza-bide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, gazteen arteko langabeziari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (11. or.).

—Galdera, Foruzaingoan lekualdatze-lehiaketarik deitu ez izanari eta kide berriei postuak esleitzeko erabiliko den prozedurari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (11. or.).
—Galdera, Estellerriko eremu ureztagarriaren proiektuari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
—Galdera, nekazariek eta abeltzainek ekoitzitako produktuen prezioei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (13. or.).
—Galdera, gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (14. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuak kontratatutako publizitate instituzionaleko kanpainei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (14. or.).
—Galdera, itxaron-zerrendak murrizteko edo Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko Foru Legeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (15. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren legezko babesaren arloan eginikoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak aztarnategien ikuskapenaren arloan eginikoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren dokumentatzearen eta berri ematearen arloan eginikoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoan esku hartzeko proiektuen prestaketaren eta zuzendaritzaren arloan eginikoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondasun arkeologiko higiezinen mantentze-lanen eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (18. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak biltegi arkeologikoaren antolaketaren eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (19. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan eginikoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (19. or.).
—Galdera, Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan eginikoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (20. or.).
—Galdera, Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan behar adinako informazio eskura izateko egindakoei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (21. or.).
—Galdera, gizarte larrialdiko kontusailari buruzkoa. Galdera erretiratzea (21. or.).
—Galdera, Nafarroan urtebete baino gutxiago daramaten pertsonentzako laguntzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (22. or.).

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duena.

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun baliodunеko epea hasiko da eta 2009ko urriaren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

# Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena.

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta 2009ko ekainaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubideko Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko urriaren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

# Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa.

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko urriaren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

# Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikuluaren b) letra aldatzen duena.

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikuluaren b) letra aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikuluaren b) letra aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko urriaren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Jabeldura, zerbitzu publikoak eta kalitatezko eta ongizatezko gizarte bat bermatzeko neurri fiskalei buruzkoa.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, zerbitzu publikoak eta kalitatezko eta ongizatezko gizarte bat bermatzeko neurri fiskalei buruzkoa.

**2.** Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## JABELDURAREN TESTUA

Maiorga Ramirezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikuluaren eta hurrengoen babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena

Gaur egungo krisi ekonomikoko egoeran, eztabaida piztu da zerbitzu publikoak eta ongizateko eta kalitatezko gizarte bat bermatzeko beharrezkoak diren zerga-neurrien inguruan.

Hori dela eta, foru parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, jakiteko zer iritzi duen ekonomiaren arloko politika orokorraren eta aztertzen ari diren balizko zerga aldaketen gainean, eta, halaber, jakiteko zer aldaketa proposatuko dizkion Gobernuari zergen alorrean.

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezala proiektatu den Nafarroako Ospitalearen larrialdietarako eraikin berrian errotulazioa euskaraz ere egonen dela.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezala proiektatu den Nafarroako Ospitalearen larrialdietarako eraikin berrian errotulazioa euskaraz ere egonen dela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatua izan dadin.

Azalpena

2009ko irailaren 16an, *Diario de Navarra* egunkarian (11. or.) Nafarroako ospitalearen larrialdietarako eraikin berriaren eraikuntzari buruzko berria agertu zen.

Eraikin berriaren proiektuaren irudia ere agertu zen. Irudi horretan larrialdietako eraikinaren aurreko aldean "URGENCIAS" errotulu handia baizik ez zegoen.

Nafarroako ospitaleak nafar guztiendako ematen du zerbitzua. Beraz, halako azpiegitura bati Nafarroako bi hizkuntzetan errotulatuta egotea dagokio.

29/2003 Foru Dekretuak, otsailaren 10ekoak, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duenak, bere 16.1 artikuluan honela dio irudi, ohar eta argitalpenen inguruan:

"16. artikulua. 1. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoen eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateen bulego, langela eta egoitzetako errotuluak, paperen idazpuru eta menbreteak, zigilu ofizialak eta gainerako identifikazio nahiz seinalizazio elementuak gaztelaniaz idatzi beharko dira."

Nafarroako Arartekoak 2004ko maiatzaren 19an (03/21 O/C espedientean) 29/2003 Foru Dekretuaren 16. artikuluaren inguruan emandako gomendioak. honela dio:

"...lo que está previendo dicho artículo es que, se debe utilizar la redacción en castellano, pero ello no significa que se prohíba la utilización bilingüe o en vascuence, sino que se utilice la que se utilice, no se puede omitir la redacción en castellano, como no podría ser de otra forma.

En primer lugar, porque cuando la norma no recoge una prohibición expresa no podemos introducirla por medio de la interpretación, contradiciendo todas las reglas recogidas en nuestra jurisprudencia sobre hermenéutica de las normas (...)

Pero es que, además, dicha interpretación nos llevaría a afirmar que no sólo se prohíbe la utilización del vascuence sino la de cualquier otra lengua, como por ejemplo la de los países comunitarios, ello representaría una contradicción con lo dispuesto en la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, que desarrolla precisamente el Decreto Foral a que se hace referencia.

Si tenemos en cuanta que esta Ley en su artículo 1°, 2 establece como objetivos esenciales de la misma, el amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el vascuence, así como a proteger la recuperación y el desarrollo de esta lengua en Navarra, no podemos sino llegar a la conclusión de que nada dice en su redacción literal el art 16 del Decreto Foral sobre la prohibición de utilizar el vascuence, ya que únicamente dispone la obligatoriedad del uso de la redacción en castellano (al margen de que se pueda utilizar además, no podría decirlo sin ser contrario a la propia Ley Foral que desarrolla, incurriendo en nulidad de pleno derecho, lo que nos llevaría a su no aplicación.

Por tanto, contrariamente a lo que se nos indica, ni el Decreto Foral 29/2003, ni el anterior 372/2000, prohíben utilizar la redacción bilingüe,

residenciando la decisión en este sentido, en lo que se refiere a los folletos informativos y material gráfico de campañas que se dirijan al conjunto de la población, en el Consejero titular responsable...”

Hori horrela, honako hau da mozioa:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektatu den Nafarroako Ospitalearen larrialdietarako eraikin berrian hala kanpoko nola barneko errotulazioa euskaraz ere egonen dela berma dezala.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta y Maiorga Ramírez Erro

---

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran antola ditzan Navarra Gourmet kongresuko zenbait ekitaldi.

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Tuteran antola ditzan Navarra Gourmet kongresuko zenbait ekitaldi.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, besteak beste, Tuteran antola ditzan Navarra Gourmet kongresuko zenbait ekitaldi.

Zioen azalpena

Duela 15 urte, Tuterako Orden del Volatin izeneko elkartea, udalarekin lankidetzan, Barazkiak goraipatzeko Jardunaldiak antolatzen hasi zen.

Jardunaldi horien helburua da baratzeko laboreek herri honetan izan duten garrantziari balioa ematea, bai eta produktu horiek hartzen ari diren garrantziari ere. Ahalegin handia egin ondoren, eta jardunaldi horiek izan ditzaketen gabeziak alde batera utzita, aitortu behar da hiria dinamizatzeko baliabide bilakatu direla.

Denbora iragan da eta antolatzaileen ahaleginak areagotu egin dira, bereziki Orden del Volatin elkartearenak, eta, horri, esker, jardunaldiak Erriberako jarduera sozioekonomikoaren dinamizatzaile bilakatu dira. Jardunaldi horien atal garrantzitsuenetako bat alderdi gastronomikoei dagokiena da, eta jakina da gastronomia dela, nekazaritzako elikagaiekin, turismoarekin eta kulturarekin batera, gure herrialdea hazkunde ekonomikoaren, berrikuntza teknologikoaren eta kultur garapenaren sektore indartsu bihurtzen ari dena.

Egoera horretan, Foru Gobernuak zenbait ekimen bultzatu ditu Nafarroako gastronomia aberatsa sustatzeko; horien artean, aipagarriak dira Iruñean eginiko “Barazkiak bizi” nazioarteko biltzarra, goi mailako gastronomiari bereziki eskainia, berrikuntza teknologikoak, nazioarteko negozio-harremanak eta marketina, hori guztia Nafarroako Erriberaren ezaugarri den produktuetan oinarrituta.

Talde honen xedea ez da zalantzan jartzea Iruñean egiten diren jarduerak, foru erkidegoko hiriburua den aldetik, baina uste dugu, egokitasunekin loturiko arrazoiak tarteko eta Nafarroako lurralde-estrategian ezarritakoa kontuan hartuta –bertan ezarritako helburuen artean dago, besteak beste, “Nafarroako lurralde-oreka sustatzea, Ebro ibarreko kooperazio-ardatza bultzatzea, Nafarroako zerbitzu publikoen lokalizaziorako laguntza ematea eta aktibo natural eta kulturalen kudeaketa turistikoa indartzea”–, ekitaldi hori Iruñean antolatzerakoan kontuan hartu behar dela Erriberak alor horretan duen funtsezko eginkizuna, eta, horrenbestez, sustatu behar dela Erriberaren partaidetza

aktiboa ekitaldiaren antolakuntza eta garapenari dagokionez, kontuan hartuta Tutera eta Erribera direla baratzako laboreen berezko eremua, bai eta eskualde horretako balio gastronomiko eta turistikoa handitzearen bultzatzaileak ere. Halaber, kongresu horrek estrategia asmo handiagoko baten zati izan beharko luke, Barazkiak goraipatzeko Jardunaldiekin ez ezik, nekazaritzaren sektorearen garapenarekin, Nekazaritza-elikagaien Hiriarekin eta Unibertsitatearekin ere lotuta, hiru horiek baitira Erriberaren eta, ondorioz, Nafarroaren garapen ekonomikorako faktore nagusiak.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “Nafarroa Gourmet” biltzarreko jardueren antolamenduan kontuan har dezan Erriberan egiten den lana, bai eta Tuteran egiten diren “Barazkiak goraipatzeko jardunaldiak” ere, halako moduz non ezarriko baitira lankidetza-tresna iraunkorrak, bi ekitaldi horiek eragiten dituzten sinergiak aprobetxatzeko eta kongresuko barazkiei buruzko zenbait ekitaldi, izaera tekniko eta mediatikokoak batik bat, Tuteran antolatzeko, kongresuko protagonista den produktua estrategikoa baita Erriberan.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

---

# Mozioa. Horren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen da lankidetza-bide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen baita lankidetza-bide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluaren eta hurrengoen babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Iragan irailaren 8an, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordea Huescan dagoen Instituto de Estudios Altoaragoneses-era joan zen bisitan, Nafarroa Baik eskatuta.

Bisitaren helburua zen Huescako Diputazioak ondareren zaintza eta kudeaketaren alorrean abian jarritako zenbait ekimen ezagutzea, zehazki, Aragoiko Ondare Kulturalaren Informaziorako Sistema. Parlamentuko ordezkaritzak lan bilera batean parte hartu zuen Instituto de Estudios Altoaragoneses-en, eta bertan aztertu ziren Huescan eta Aragoin garatu diren ahozko ondareari buruzko proiektuak.

Halaber, Nafarroako parlamentariek Aragoiko Ondare Kulturalaren Informaziorako Sistemari buruzko informazioa jaso genuen. Sistema hori Instituto de Estudios Altoaragonesesek sustatu zuen eta kultur ondareari buruz dagoen informazio guztia kudeatzeko erabiltzen da. Elisa San Juanek Nafarroako parlamentariei adierazi zienez, Hues-

cako Diputazioa prest dago, behar izanez gero, aipatu sistema ezartzeko eredua eta tresnak lagatzeko.

Halaber, San Juanek azaldu zuen nolako hitzarmenak sinatu dituzten proiektu horrekiko interesa agertu zuten zenbait erakunderekin, Gironako Diputazioa kasu. Sistema horri dagokionez, azpimarratu zuen "oso tresna eraginkorra" dela kultur ondasunei buruzko informazioa "partekatu eta kudeatzeko". "Ez da erakundeentzako tresna soilik; izan ere, herritar guztien eskura dago, www.sipca.es webgunearen bidez.

Nafarroako parlamentariek "oso positibotzat" jo genuen Huescako Diputazioak eginiko lana eta ahalegina SIPCA bezalako proiektuak garatzerakoan, eta, horrekin lotuta, nabarmendu behar da "Huescako ondarearen kudeaketa eta zaintza prozesuaren egoera aurreratua".

Aragoiko Ondare Kulturalaren Informaziorako Sistema (SIPCA) 2006an jarri zen abian Huescako probintzian, eta, horren bidez, kultur ondarearekin zerikusia duten erakunde publiko guztiek beren eskumeneko ondare-ondasunekin lan egiteko beharrezkoa duten informazioa, laguntza teknikoa eta kudeaketarako tresnak eskura ditzakete.

Halaber, SIPCAk erabiltzaileen eskura jartzen du era guztietako kultur ondasunei buruzko informazioa, arkitektura ondaretik eta aztarnategi arkeologiko eta paleontologikoetatik hasita higiezinekin edota ondare dokumentalarekin zerikusia duen informaziora.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentutaldeak ondoko erabakia hartzea proposatzen du:

Nafarroako Parlamentuak Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen du:

1. Lankidetza-bide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat, eta lankidetza hitzarmen bat sina dezan.

2. Aipatu hitzarmena sei hilabeteko epean sina dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, gazteen arteko langabeziari buruzkoa.

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gazteen arteko langabeziari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Gazteen arteko langabeziari buruzko galdera

• Zer iritzi du kontseilariak Nafarroan 25 urtez beherakoen artean langabezia Estatuako gainerako erkidegoetan baino altuxeagoa izateari buruz?

• Zergatik Nafarroan, gizartearen talde horretan, langabezia % 30 handitu da, Estatuan % 20 areagotu den bitartean?

Iruñean, 2009ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

# Galdera, Foruzaingoan lekualdatze-lehiaketarik deitu ez izanari eta kide berriei postuak esleitzeko erabiliko den prozedurari buruzkoa.

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Foruzaingoan lekualdatze-lehiaketarik deitu ez izanari eta kide berriei postuak esleitzeko erabiliko den prozedurari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Ahozko galderaren testua

Ikusirik laster amaituko dela Foruzaingoaren promozioaren prestakuntza aldia, eta oraindik ez denez deitu dagokion lekualdatze lehiaketa, hau jakin nahiko nuke:

Zergatik ez da deitu Foruzaingoan lekualdatzelehiaketarik? Zer prozedura erabiliko da kide berriei, izendatu ostean, postuak esleitzeko?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

---

# Galdera, Estellerriko eremu ureztagarriaren proiektuari buruzkoa.

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Estellerriko eremu ureztagarriaren proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2009ko martxoaren 5ean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak agerraldia egin zuen, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatuta, Lizarraldean eremu ureztagarri bat sortzeko proiektuari buruz informatzeko.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak agerraldian esan zuen 2010eko lehen seihilekoan eremu ureztagarria modu zehatzagoan identifikatuta egonen denez, lursailen eta jabeen araberako identifikazio bat eginen dela eta Lizarraldeako eremu ureztagarria egiteko proiektuak ukitutako nekazariei kontsultatuko zaiela.

Azken egun hauetan ikusi dugunez, Arartekoak, Francisco Javier Enériz jaunak, Nafarroako Gobernuari eskatu dio eremu ureztagarriaren onespena zehaztu eta nekazarien jarrera ezagutzera eman dadin.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak pentsatu al du zein izanen den formularik egokiena ziurtasunez ezagutzeko Lizarraldeako eremu ureztagarri berriak ukitutako jabeek oro har duten iritzia eta jarrera?

2. Nafarroako Gobernuak noiz eginen du kontsulta hori?

3. Nafarroako Gobernuak herriz-herriz eta egun berean galde eginen die Lizarraldeako eremu ureztagarri berriak ukitutako jabeei?

4. Kontsultaren emaitza Lizarraldeako eremu ureztagarri berriaren aurkakoa balitz, Nafarroako Gobernua prest al dago emaitza hori onartzeko?

5. 2009ko martxoaren 5ean, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatuta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Parlamentuan agerraldian egin zuenetik, egin al da lurzati-trukerik? Halakorik egin bada, horien kopiak eskuratu nahiko nituzke.

Iruñean, 2009ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

# Galdera, nekazariek eta abeltzainek ekoitzitako produktuen prezioei buruzkoa.

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, nekazariek eta abeltzainek ekoitzitako produktuen prezioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nekazaritzako sektorea hipermerkatuen arteko prezio-gerraren biktima sentitzen da. Nekazariek eta abeltzainek salatzen dutenez, banatzaileek murriztu egin dituzte haien lanaren emaitzagatik ordaintzen dizkieten prezioak, beren mozkin-marjinak ez murrizte aldera. Produkzio-kostuen azpitik ordaintzen diete. Esate baterako, litro bat esne ekoizteak 0,38 euroko kostua du, baina Nafarroako abeltzainei 0,27 euro ordaintzen diete litroko.

Produkzio-prezioaren eta kontsumitzaileek merkatuan ordaintzen dutenaren arteko alde handia kezkagarria da eta, horren ondorioz, arreta jarri da prozesuan esku hartzen duten bitartekarien zerrenda luzean, zenbaitetan prezioak puztu egiten baitituzte ahalik eta onura handiena lortze aldera.

Elikadurarekiko espekulazio-neurrien aurka egon behar dugu. Nekazariek eta abeltzainek produkzio-kostuak baino gutxiago kobratzen ari dira eta hori onartezina da. Gero eta alde handiagoa dago produkzio-kostuen eta kontsumitzaileek ordaindutako prezioen artean. Horretarako nahikoa da Elikagaien Prezioen Behatokiaren (Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioa) taulari edo uztaileko jatorriko eta helmugako prezioen indizeari begiratzea. Elikagaien jatorriko eta helmugako prezioen indizea COAG (Nekazarien eta Abeltzainen Elkarteen Koordinakundea), CEACCU (Etxekoandreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Espainiako Konfederazioa) eta UCE (Espainiako Kontsumitzaileen Batasuna) erakundeek sortua da. Elikagaien jatorriko eta helmugako prezioen indizearen bidez alderatzen dira bitartekariek nekazariei ordaintzen dizkieten prezioak kontsumitzaileei saltzen zaizkien elikagaien prezioekin.

Banaketa kate handiak elikagaien merkatuen kontrolaz jabetu dira, eta halako praktiken bidez gero eta diru gehiago irabazten dute, kontsumitzaileen eta, batez ere, nekazarien eta abeltzainen kaltetan. Merkataritzako mozkinak gero eta handiagoak dira. Gero eta kezkagarriagoa den egoera hau dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

• Nafarroako Gobernua aztertzen ari al da jatorrizko prezioen eta kontsumitzaileei kobratzen zaizkien prezioen arteko aldea?

• Nafarroako Gobernuak hartu behar al du legegintzako edo bestelako neurririk egoera larri honen aurrean?

• Zer eginen du Nafarroako Gobernuak jatorrizko prezioen eta helmugakoen arteko aldea areagotu ez dadin?

• Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu Nafarroako Gobernuak nekazari eta abeltzainek ekoizturiko produktuen jatorrizko prezioak produkzio-kostuen azpitik egon ez daitezen?

• Nafarroako Gobernuarentzat aski al da Prezioen Behatokia izatearekin?

• Nafarroako Gobernuak sortu behar al du prezioen behatoki publiko bat?

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## Galdera, gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruzkoa.

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideak ez dira modu berean aplikatu Nafarroako osasun zentro guztietan. Zergatik?

Iruñean, 2009ko iralaren 21ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

---

## Galdera, Nafarroako Gobernuak kontratatutako publizitate instituzionaleko kanpainei buruzkoa.

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak kontratatutako publizitate instituzionaleko kanpainei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernua publizitate instituzional handia egiten ari da krisi ekonomikoa edota Nafarroa 2012 Plana bezalako gaietan.

Publizitate instituzional horrek baliabide publikoen gastua dakar eta, horretan gain, publizitate horretan ez da beti erraza izaten herritarrarentzako informazioa eta Nafarroako Gobernuaren propaganda soila bereiztea.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

• Publizitate instituzionala egiteko zenbat kanpaina kontratatu ditu Nafarroako Gobernuak zuzenean edo zeharka –enpresa publikoak, erakunde autonomoak...– 2008an eta aurten? Kontratatutako kanpainen zerrenda eta haien kostua, aurrekontua eta betetakoa, eskuratu nahiko nuke.

• Nafarroa 2012 Planari buruzko publizitate instituzionala egiteko zenbat kanpaina kontratatu ditu Nafarroako Gobernuak zuzenean edo zeharka –enpresa publikoak, erakunde autonomoak...– 2008an eta aurten? Kontratatutako kanpainen zerrenda eta haien kostua, aurrekontua eta betetakoa, eskuratu nahiko nuke.

• Krisiaren kontrako Planari buruzko publizitate instituzionala egiteko zenbat kanpaina kontratatu ditu Nafarroako Gobernuak zuzenean edo zeharka –enpresa publikoak, erakunde autonomoak...– 2008an eta aurten? Kontratatutako kanpainen zerrenda eta haien kostua, aurrekontua eta betetakoa, eskuratu nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

# Galdera, itxaron-zerrendak murrizteko edo Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko Foru Legeari buruzkoa.

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, itxaron-zerrendak murrizteko edo Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko Foru Legeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran idatziz erantzun dezan:

Itxaron-zerrendak murrizteko edo Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko Foru Legea betetzeko kontusailetik:

• Zenbat gastatu da orain arte?

• Zenbat gastatu da osasun zerbitzu publikoaen alorrean eta zenbat gaixoak zentro itunduetara bidaltzen? Zehaztea nahiko nuke zenbat gastatu den zentro bakoitzean, eta gastu horretatik, zenbat izan den kontsultetarako, zenbat ebakuntzetarako, zenbat diagnosietarako, eta, prozesuengatiko gasturik izan bada, jakin nahi dut zer prozesutan gastatu den eta zein zentrotan.

• Zer egin da osasun zerbitzu publikoaren alorrean giza baliabideak eta baliabide fisikoak edo bestelakoak bermatzeko, Itxaronaldien Bermeei buruzko Foru Legean ezarritakoa betetze aldera?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

---

# Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren legezko babesaren arloan eginikoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren legezko babesaren arloan eginikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer lan eta jarduera egin ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan 2007tik orain arte?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

# Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak aztarnategien ikuskapenaren arloan eginikoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak aztarnategien ikuskapenaren arloan eginikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer lan eta jarduera egin ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako aztarnategien ikuskapenaren arloan 2007tik orain arte?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren dokumentatzearen eta berri ematearen arloan eginikoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren dokumentatzearen eta berri ematearen arloan eginikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer lan eta jarduera egin ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoaren dokumentatzearen eta berri ematearen arloan 2007tik orain arte?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

## Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoan esku hartzeko proiektuen prestaketaren eta zuzendaritzaren arloan eginikoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoan esku hartzeko proiektuen prestaketaren eta zuzendaritzaren arloan eginikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer lan eta jarduera egin ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondare arkeologikoan esku hartzeko proiektuen prestaketaren eta zuzendaritzaren arloan 2007tik orain arte?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurr

---

## Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondasun arkeologiko higiezinen mantentze-lanen eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondasun arkeologiko higiezinen mantentze-lanen eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer lan eta jarduera egin ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak ondasun arkeologiko higiezinen (aztarnategiak) mantentze-lanen eta kudeaketaren arloan 2007tik orain arte?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

# Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak biltegi arkeologikoaren antolaketaren eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak biltegi arkeologikoaren antolaketaren eta kudeaketaren arloan eginikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer lan eta jarduera egin ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak biltegi arkeologikoaren antolaketaren eta kudeaketaren arloan 2007tik orain arte?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

# Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan eginikoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan eginikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer lan eta jarduera egin ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkeologia Atalak Nafarroako inbentario arkeologikoa gauzatzearen arloan 2007tik orain arte?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

# Galdera, Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan eginikoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan eginikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer lan eta jarduera egin ditu Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak 2003tik orain arte, ondokoak betetze aldera:

– Herritarrek kulturarekiko duten sentsibilizazioa sustatzea

– Kultur-komunikazioa sustatzea.

– Kulturaren sustapena bultzatzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

# Galdera, Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan behar adinako informazio eskura izateko egindakoei buruzkoa.

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak kulturaren arloan behar adinako informazio eskura izateko egindakoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Nolako azterlanak egin ditu Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atalak 2003tik orain arte kulturari buruzko informazio nahiko izate aldera?

Iruñean, 2009ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

# Galdera, gizarte larrialdiko kontusailari buruzkoa.

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko galdera, gizarte larrialdiko kontusailari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea. Galdera hori 2009ko irarilaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

# Galdera, Nafarroan urtebete baino gutxiago daramaten pertsonentzako laguntzei buruzkoa.

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan urtebete baino gutxiago daramaten pertsonentzako laguntzei buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea. Galdera hori 2009ko irarilaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Inprimatzailea: Ulzama Digital (Iruña).
Lege Gordailua: NA — 363-1995
Paper ekologiko birziklatua